

IKASTAROA: Konpetentzia digitalak: Informazioa eta datuak bilatzea eta kudeatzea

Irakasela:

Oskia Agirre Orbegozo

EHUko Gipuzkoako campuseko liburuzaina. Informazio eta Dokumentazioan graduatua, dokumentazio Digitalean masterra eta Ikerkuntzarako Laguntza Zerbitzuetan aditu titulua egin ditu. Aurretik Deustuko Unibertsitateko Donostiako campusean liburuzain eta Osakidetzan dokumentalista moduan aritu da.

Zergatik ikastaro hau?

Informazio eta dokumentazio arloko profesionalak gaitasun digitalak nahitaezkoak dituzte euren eguneroko lanean. Herritarrentzako Gaitasun Digitalen Esparruak (DigComp) jasotzen dituen gaitasunen artean, 1. gaitasun-arloak (Informazioa eta datuak bilatzea eta kudeatzea) zerikusi zuzena du arloko profesionalen lan eremuarekin. Gaitasun espezifiko horiek landuko dira ikastaroan, informazioaren erabilera etikoa eta adimen artifizialak egun duen papera kontutan hartuz.

Helburuak

Ikastaro honen helburuak dira:

- Datuak, informazioa eta eduki digitalak bilatzea, iragaztea eta haietan nabigatzea
- Datuak, informazioa eta eduki digitalak ebaluatzea
- Datuak, informazioak eta eduki digitalak kudeatzea
- Berreskuratutako informazioaren erabilera etikoa eta egile eskubideak
- Testuinguru honetan adimen artifizialak duen papera aztertzea

Edukiak

- Bilaketen oinarriak (bilaketa bibliografikoak zein eduki digitalen bilaketak): operadore boolearrak, iragazkiak
- Iturri motak: datu-baseak eta bilatzaileak, adimen artifizialaren papera prozesu honetan.
- Iturrien fidagarritasuna modu kritikoan aztertzea eta alderatzea.
- Informazioa antolatzea, biltegitratzea eta berreskuratzea: Zotero
- Berreskuratutako informazioaren erabilera etikoa eta egile eskubideak.

Hartzaileak

Ikastaro hau informazio eta dokumentazio profesionaleri zuzenduta egongo da. Eremu zabalago bat hartuz, alfabetatze informazional zein digitalean interesa duten bestelako profesionalentzat ere egokia izango da.

Egutegia / Calendario:

Azaroak 27
2026

27 de noviembre
2026

Ordutegia / Horario:

09:00-14:00

Lekua / lugar:

Donostiako Haur Liburutegi
Nagusia. Fermin Calbeton 25,
Donostia

Hizkuntza / Idioma:

Euskara

Modalitatea / Modalidad:

Presentziala

Iraupena / Duración:

5 h

Matrikula / Matrícula:

Bazkideak: 50€
Ez bazkideak: 75€
Bazkide langabeak: 25€

Harremanetarako / Contacto:

aldee@aldee.eus
tel.: 943462024
605715007

Elkarlanean / Colaboran:



Babesten / Patrocinan:



Metodologia

Funtsezko oinarri teorikoak azaldu ondoren adibide praktikoak landuko dira. Horretarako, bakarka zein taldeka landu beharreko jarduerak erabiliko dira.

Programa

Ikastaroa 5 ordukoa izango da eta honako gaiak jorratuko dira:

- Bilaketen oinarriak (bilaketa bibliografikoak zein eduki digitalen bilaketak): operadore boolearrak, iragazkiak
- Iturri motak: datu-baseak eta bilatzaileak, adimen artifizialaren papera prozesu honetan
- Iturrien fidagarritasuna modu kritikoan aztertzea eta alderatzea
- Informazioa antolatzea, biltegitratzea eta berreskuratzea: Zotero
- Berreskuratutako informazioaren erabilera etikoa eta egile eskubideak.

Oharrak

Ikasle bakoitzak bere ordenagailu eramangarria eraman beharko du.

Leku mugatuak izango dira eta izen-emate ordenaren eta matrikula ordainketaren arabera emango dira.

Baliogabetze politika

Izen-ematean baja emateko epea ikastaroa hasi baino bi aste lehenago amaituko da. Ikastaroa hasteko bi aste edo gutxiago falta diren kasuetan, baja ematen dutenei ez zaie matrikularen ordaina itzuliko.

Egutegia / Calendario:

Azaroak 27
2026

27 de noviembre
2026

Ordutegia / Horario:

09:00-14:00

Lekua / lugar:

Donostiako Haur Liburutegi
Nagusia. Fermin Calbeton 25,
Donostia

Hizkuntza / Idioma:

Euskara

Modalitatea / Modalidad:

Presentziala

Iraupena / Duración:

5 h

Matrikula / Matrícula:

Bazkideak: 50€
Ez bazkideak: 75€
Bazkide langabeak: 25€

Harremanetarako / Contacto:

alde@alde.eus
tel.: 943462024
605715007

Elkarlanean / Colaboran:



Babesten / Patrocinan:

